

Bukaera txostena

2024-2025



1.- Sarrera	
2.- Parte-hartzea	
3.- Emaitzen azterketa	
4.- Irakasleen gogobetetasuna	
5.- Ondorioak	
6.- Eranskina	

1.- Sarrera

Oraingo ume eta nerabeak inoizko sasoi fisiko gutxien izan duen belaunaldia omen dira. Honek kalteak sortzen ditu haien errendimendu akademikoan, egungo eta etorkizuneko osasunean, ongizatean eta bizi kalitatean. **Arazoa neurtzen ez bada ez da aintzat hartuko.** Beraz, orain inoiz baino gehiago, ume eta nerabeen sasoi fisikoa neurtzeko beharra dago.

Gainera bizi-ohitura aktiboak sortu eta errotzeko, behar-beharrezkoa da **ume eta gazteekin egindako lanari lehentasuna ematea**. Gero eta gazteagoak izanik, alde batetik gure burmuinak gaitasun handiagoa du esperientziaren bidez aldatzeko, eta bestaldetik aldaketa horietarako egin beharreko ahalegina txikiagoa da.

Guzti honengatik [Eusfit Mugiment](#), **sasoi fisikoaren monitorizazio sistema** abiarazi zen euskal haur eta nerabeen sasoi fisiko maila ezagutzeko, eta hau abiapuntu izanda, eskuhartze ezberdinak proposatu ahal izateko.

Sistemaren oinarria lehentasunezko **ALPHA-Fitness** bateria da eta 5 probaz osatuta dago:

- Gorputz masa indizea: pisua eta altuera.
- Gerri-perimetroa.
- Eskuen presio-indarra.
- Luzeera jauzia oinak elkarrekin.
- 20 metro joan-etorri proba.

Bateria hau landa-proba baliagarriak, fidagarriak, seguruak eta bideragarriak emateko garatu zen, haurren eta nerabeen osasunarekin lotutako egoera fisikoa ebaluatzeko, eta Europar Batasuneko estatu kideetako Osasun Publikoko sistemetan modu adostuan erabiltzeko. Gainera, bateria honek sasoi fisikoa eta osasun ondorioen arteko harremana ebidentzia zientifikoan oinarritzen du.

Emaitzak Europa osoko erreferentzia-parametroekin alderatzen dira, Europa mailako [Fitback](#) proiektuaren bidez lortzen direnak.

Dokumentu honen helburua da 2024-2025 ikasturtearen emaitzak aurkeztea.





Ekimenari buruzko informazioa [web orri honetan](#) osa daiteke.

2.- Parte-hartzea

2024-2025 ikasturtean hirugarren aldiz burutu da [Eusfit Mugiment](#) ekimena, gorputz hezkuntzako irakasle guztiei irekita.

Guztira, **57 ikastetxek (=)** eta **121 irakaslek (+% 9)** parte hartu dute, **38 udalerritakoak (+% 15,15)**. **377 taldetan (-% 3,18)** pasatu dira probak, **5.343 ikasleri (-% 10,03)**, 2.606 neskak (-% 6,7) eta 2.736 mutilak (-% 13,03).

Ikasturte	Ikastetxe	Udalerri	Irakasle	Talde	Ikasle guztira	Ikasle neskak	Ikasle mutilak	Ez-bitarra
2022-2023	34	27	59	216	3.605	1.792 % 49,71	1.813 % 50,29	0 % 0,00
2023-2024	57	33	111	389	5.939	2.793 % 47,03	3.146 % 52,97	0 % 0,00
2024-2025	57	38	121	377	5.343	2.606 % 48,77	2.736 % 51,21	1 % 0,02




17 urteko ikasleen lagina handia izan ez arren (21), emaitzen azterketan sartzea erabaki dugu. Ordea, 18 urteko bi ikasle neurtu dira eta txostenean ez ditugu sartu.

3.- Emaizten azterketa

Jarraian 2024-2025 ikasturtean lortutako emaitzak aurkezten dira. Azterketarako erabili diren erreferentziatzko baloreak Fitback proiektutik hartu ditugu, Europa osoan haur-nerabeen sasoi fisikoa neurtzeko sortu den ekimenetik.

5 emaitza ezberdin eskaintzen dira, 3 gaitasun talde ezberdinetan banatuta:



Esan dugu 5.343 ikaslek egin dituztela probak, baina ikasle guztiek ez dituzte probak egin, arrazoi ezberdinengatik, nagusiena, familien baimen falta. Denera, 1.052 ikaslek ez dituzte probak egin (% 16,45), 550 neska (% 17,43) eta 502 mutil (% 15,50).


Hurrengo taulan adierazten dira probak egin ez dituzten ikasle kopuruak, arrazoiaren arabera sailkatuta.

Arrazoaia	2024/2025				
	Neskak	%	Mutilak	%	Denak
Irakasleak erabakita	1	% 0,18	0	% 0,00	1
Aniztasun funtzionala	1	% 0,18	5	% 1,00	6
Absentismoa	29	% 5,27	16	% 3,19	45
Familiaren baimenik eza	452	% 82,18	400	% 79,68	852
Beste arrazoiak	67	% 12,18	81	% 16,14	148
Guztira	550	% 52,28	502	% 47,72	1.052

Hurrengo taulan probak ez egitearen arrazoien bilakaera 3 ikasturteetan zehar.

Arrazoaia	2022/2023			2023/2024			2024/2025		
	Neskak	Mutilak	Denak	Neskak	Mutilak	Denak	Neskak	Mutilak	Denak
Irakasleak erabakita	4 % 1,13	2 % 0,62	6	4 % 0,68	1 % 0,15	5	1 % 0,18	0 % 0,00	1
Aniztasun funtzionala	0 % 0,00	3 % 0,93	3	3 % 0,51	5 % 0,74	8	1 % 0,18	5 % 1,00	6
Absentismoa	33 % 9,30	23 % 7,12	56	43 % 7,26	86 % 12,70	129	29 % 5,27	16 % 3,19	45
Familiaren baimenik eza	278 % 78,31	257 % 79,57	535	400 % 67,57	399 % 58,94	799	452 % 82,18	400 % 79,68	852
Beste arrazoiak	40 % 11,27	38 % 11,76	78	142 % 23,99	186 % 27,47	328	67 % 12,18	81 % 16,14	148
Guztira	355 % 52,36	323 % 47,64	678	592 % 46,65	677 % 53,35	1.269	550 % 52,28	502 % 47,72	1.052

Beste arrazoiaren artean nagusia izan da *osasun fisiko emozionala eta jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna* hautazko ikasgaietako taldeak ezin izan direla aplikazioan kargatu eta ikasle horiek *gorputz hezkuntza* ikasgaietako taldeen bidez kargatu direla. Horrela, hautazko ikasgaiak egin ez dituzten ikasleak neurketatik baztertuta geratu dira eta kasu hauetan baztertze arrazoi bezala adierazi da “Beste arrazoiak”.




Probak egin dituzten ikasleen datuekin bi emaitza mota ematen dira. Alde batetik, proba bakoitzean jasotako **baloreen batez bestekoa**, adina eta sexuaren arabera, **erreferentziatzko baloreen gainean**. Bestetik, proba bakoitzean ikasleen sasoi fisikoa nola dagoen erakusten duten portzentajeak eremuen arabera adierazita, adina eta sexuka.


3.1.- Gorputz Masa Indizea (GMI)

Gorputz-masaren indizea (kilogramotan adierazitako gorputz-pisua zati altuera metroan neurtuta ber bi) pisuarrunt, gainpisu eta obesitate-mailaren adierazlea da eta zuzenean lotuta dago profil kardiobaskularrarekin.


Batezbeste:



Portzentajeak:



Adina	Balio normatiboetan	Hobetzea gomendatzen da	Hobetu behar du
6	70,70%	20,65%	8,70%
7	56,70%	38,33%	5,00%
8	69,40%	21,66%	8,92%
9	61,60%	31,53%	6,90%
10	73,90%	22,61%	3,53%
11	69,70%	27,24%	3,10%
12	80,50%	16,97%	2,53%
13	71,70%	22,93%	5,37%
14	79,90%	16,73%	5,19%
15	78,90%	18,73%	2,39%
16	72,80%	22,22%	4,94%
17	42,90%	42,86%	14,29%





Adina	Balio normatiboetan	Hobetzea gomendatzen da	Hobetu behar du
6	83,00%	10,64%	6,38%
7	66,70%	27,27%	6,06%
8	74,80%	17,79%	7,36%
9	73,30%	19,80%	6,93%
10	81,40%	14,34%	4,30%
11	70,30%	25,00%	4,65%
12	69,40%	27,49%	3,09%
13	73,30%	23,76%	2,97%
14	75,10%	19,09%	5,83%
15	95,50%	20,13%	5,11%
16	81,30%	14,04%	4,68%
17	41,70%	41,67%	16,67%



3.2.- Gerri-perimetroa (zm)

Gerriaren perimetroa erdialdeko gantz-masaren markatzailea da eta gaixotasun kardiobaskularra izateko arrisku-markatzaileekin lotzen da zuzenean.

Batezbeste:





Portzentajeak:





3.3.- Eskuen presio-indarra (kg)

Eskuen presio-indarra goi-atalaren indarraren adierazlea da, eta osasun fisiko eta mental hoberekin lotzen da.

Batezbeste:



Portzentajeak:




3.4.- Luzeera jauzia oinak elkarrekin


Behe-atalaren indar esplosiboa osasun kardiobaskularraren markatzailea da, eta zuzenean lotzen da errendimendu kognitiboarekin.

Batezbeste:



LUZEERA JAUZIA OINAK ELKARREKIN NESKAK



LUZEERA JAUZIA OINAK ELKARREKIN MUTILAK





Portzentajeak:





3.5.- 20 metro joan-etorri

Gaitasun aerobikoak sistema kardiobaskularraren eta arnas sistemaren ahalmena adierazten du, denbora luzez ariketa fisikoa egitea ahalbidetzen duena. Haur eta nerabeen osasun kardiobaskularraren eta psikologikoaren markatzaile garrantzitsuenetakoa da, eta errendimendu kognitiboarekin estuki lotuta dago.

Batezbeste:



Portzentajeak:




3.6.- Eraitza orokorrak


Adin guztiak aintzat hartuta, ondorengoak dira proba bakoitzaren eraitzak.

Gorputz osaketa


Gorputz Masa Indizea (GMI) neskak




Gorputz Masa Indizea (GMI) mutilak



Gerri-perimetroa neskak




Gerri-perimetroa mutilak




Gaitasun muskulu-eskeletikoa


Eskuen presio-indarra neskak




Eskuen presio-indarra mutilak



Luzeera jauzia neskak




Luzeera jauzia mutilak




Gaitasun aerobikoa

20 metro joan-etorri neskak



20 metro joan-etorri mutilak



Gogoratu! Irakasle bakoitzak bere estatistikak kontsulta ditzake aplikazioan bertan *estatistikak* atalean.

4.- Irakasleen gogobetetasuna


Eusfit Mugiment proiektuan parte hartu duten irakasleen iritzia ezagutu nahi izan dugu. Horretarako irakasle guztiek gogobetetasun galdetegi bat betetzeko aukera izan dute. Galdetegi honen helburua proiektuan izandako esperientziari buruzko iritzi eta iradokizunak jaso, hobekuntza-arloak identifikatu eta datozen ikasturteetara begira hobetu ahal izatea da.

Guztira, 2024-2025 ikasturtean parte hartu duten 121 irakasleetatik **31k bete dute galdetegia, % 25,6**. Eta, azpian daude ikusgai jasotako emaitzak:

Probak egiteko jarraibideak:

Probak egiteko jarraibideak baloratu:

31 respuestas




Zer egin behar da proben jarraibideak hobetzeko?

- Oso ondo azalduta dagoela esango nuke.
- Ezer ez.
- Bideo batean azaldu frogak ikasleei bidaltzeko egin baino lehen.
- Ondo dagoela uste dut.
- Nire ustez oso ondo daude jarraibideak.
- Bideo bidez azaldu.
- Eskuko indarra neurtzeko tresnaren neurria ondo jartzeko bideotutoriala.

Aplikazio informatikoa:

Baloratu aplikazio informatikoa

31 respuestas




Zer hobetu behar da aplikazioan?

- Ezer ez.
- Argia izatea eta erraza datuak pasatzeko eta jasotzeko.
- Arazoren bat izan dut taldeak ikusi ahal izateko (zuen laguntzarekin konpondu dut) eta gauzaren bat kostatu zait ikustea baina aplikazioa erabili izan dudana lehenengo aldia zen, hortaz, "rodaje" falta ere izan daiteke.
- Datuak ondo erregistratu direnaren feedback bat izan momentuan, batzutan ondo sartu nituenaren zalantzak nituen.
- Guk ditugun dokumentuetatik datuak bertara zuzenean igo ahal izatea ahalbidetu.
- Erraztasuna datuak sartzeko.
- Datuak era errazago batean sartu ahal izatea, momentuan bertan datuak erregistratzeko.
- Pila de bota galtzen da datuak sartzerakoan.
- Tuoriala errezago.
- Aplikazioa ondo dago, nahiko intuitiboa da.
- Sartzeko baimenak mantendu betirako.
- Excell batetik datuak bolkatzeko aukera izatea.
- Aproposa da.

Idazkaritza teknikoarekin harremana:

Baloratu idazkaritza teknikoarekin harremana:

31 respuestas




Zertan hobetu dezake idazkaritza teknikoak?

- Ezer ez.
- Ez dakit.
- Primerako lana egiten dute.
- Ezin hobeia izan da.
- Galdera bat : Posible litzateke urtero-urtero gurasoei baimena eskatu orde, programa-ikasturte guztietarako baimen-sinadura bakarra eskatzea eta baimen horrekin baliatzea, jarraitzea ondorengo ikasturteak, ikasle/gurasoek aldatzerik proposatu ezean?
- Ez dut harremana izan, ez da beharrezkoa izan.
- Ez da hobetu behar.

Proiektuaren inguruko informazioa

Proiektuaren inguruko informazio nahikoa jaso al duzu?

31 respuestas



Zer egin dezakegu komunikazioa hobetzeko?

- Ezer ez.
- Lehenago abisatu. Kurtso hasieratik.
- Pertsonalki elkartu ginateke.
- Komunikazioa, nire ustez, era egokian dabil.
- Ikastetxetara hurbildu informazioa klaustro mailan zabaltzeko eta ez gorputz hezkuntzako irakasleen esku utzi.

Eusfit Mugiment zabaldu nahi badugu, zer hobetu behar dugu?

- Gure ikastetxearen kasuan, material gehiago erraztu.
- Gurasoentzako bideo bat edo bilera bat egin zer den, zertarako, zer egin emaitzak jaso ondoren... azalduz.
- Kurtso hasieran txosten labur bat bidali irakasle berriei erakutsi ahal izateko: helburua, datuak...
- Ezer ez.
- Gurasoek umeen eskutan uzten dute erabakia eta horrek azkenean eragiten du askok ez egin nahi izatea.
- Probak egitearen zergatia hobeto (eta modu ulergarrian) azaldu behar da bai ikasle bai gurasoei. Horretaz aparte, nire uste apalean proiektuak pisu larregi ematen dio gorputzaren neurketari (GMI-a eta gerri perimetroa); eta, ordea, ez da aipatzen, adibidez, jarduera fisikoa ohikotasunez egitearen garrantzia. Honekin lotuta uste dut gorputzen onarketaren lanketa egin beharko zela proiektuko proben aurretik. Ikasle askok ez dute pisua eta gerri perimetroa neurtu nahi. Eta, elikadura nahasmena duten ikasleek zeguraski ez lukete egin beharko (horren kudeaketa ere arazo bat da).
- Kurtso hasieratik familiei informatu.
- Neri zehazki, proiektuari buruzko informazioa ezagun baten bitartez ailegatu zitzaidan kasualitatez (biok heziketa fisikoko irakasleak gara eta galdetu zidan ea proiektuan nengoen baina nik momentu horretan ez nekien ezta zer zen). Bide ofizialik (ikastetxetik) ez zitzaigun ezer ailegatu. Ez dakit zentzu horretan propaganda zabalagoa egin daitekeen irakasle gehiagotara ailegatzeko.
- Eskolei apuntatzeko informazioa bidali irailean. Gure eskolan apuntatu gara mintegikide batek pasa den urtean egin zuelako beste eskola batean.
- Gurasoei Informazioa beste era batera emango nien.
- Eskerrik asko danagatik!
- futbolarekin erlazionatu...
- Nire ustetan egiten dena egokia da.
- Familiak kontzientziatu Institutu osoko proiektu bihurtu.
- Hezkuntzarekin hitz egin derrigorrezkoa izateko.
- Informazioa hobeto zabaltzea familiak kontzientziatzeko.

5.- Ondorioak

1. Geldialdia ikusten da partaidetzaren hazkundean: 57 ikastetxe (=), 121 irakasle (+% 9), 377 talde (-% 3,18) eta 5.343 ikasle (-% 10,03). Horietatik, 2.606 neskak (% 48,77) eta 2.736 mutilak (% 51,21) izan dira.
2. Probak egin ez dituztenen portzentajea % 16,45 izan da mutiletan % 15,50 eta nesketan % 17,43. Arrazoi nagusia familien baimenik eza izan da (% 80,99).
3. Ikasle askok ez dituzte proba guztiak egin: % 10,19ak ez ditu egin gorputz masa indizea neurtzeko probak, % 13,17ak ez du neurtu gerri-perimetroa eta % 11,78ak ez du egin 20 metro joan-etorriko proba.
4. Emaizta positiboak gorputz osaketan eman dira, batez ere gerri-perimetroan, eta mutiletan nesketan baino hobeto. Alabaina, ezin da alde batera utzi ikasleen % 13,17ak ez dutela proba hau pasatu. Ondorioz, tentuz egin behar da emaitzaren irakurketa.
5. Europa mailako datuekin alderatuta, hainbat probetan gure egoera txarra ez izan arren (aintzat hartu 5. ondorioan esandakoa), beste batzuetan ezin gara baikorrak izan.
6. Emaizta kezkagarrienak gaitasun muskulu-eskeletikoan ematen dira, konkretuki eskuen presio-indarrean (okerrago mutilak), aurreko bi ikasturtetan gertatu bezala.
7. 17 urteko ikasle oso gutxi daude, beraz, adin horren egoera ezagutzerik ez dago.
8. Aplikazioak ezin ditu jaso oraingoz gorputz hezkuntzako ikasgaikoak ez diren beste ikasgaien ikasle taldeak, adibidez, DBH-en ematen den *osasun fisiko eta emozionala* edo batxilergoko *jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna*. Saiatuko gara hobekuntza hau txertatzen datozen ikasturteetarako.
9. Irakasleen balorazioak positiboak izan dira. Ondo baloratzen dituzte jarraibideak, aplikazioa, komunikazioa eta bereziki jasotako laguntza. Hauek egindako proposamenak txertatzen saiatuko gara datozen ikasturteetan.
- 10. Eusfit Mugiment-ek bi helburu nagusi bete behar ditu: ikasle bakoitzaren eta ikasle osoaren sasoi fisikoa erakustea. Parte hartzea boluntarioa izanda, eskaintzen ari garen azterketaren emaitza positiboegia den susmoa dugu, probak egin ez dituzten ikasleak izan baitaitezke sasoi fisiko baxuena daukatenak.**

Ekimen honek ikasle, familia, irakasle eta kudeatzaileen lana eskatzen du (eta pediatrena eta ikertzaileena gehitu nahi genuke). Lan honi modu egokian etekina ateratzeko ikasle guztien sasoi fisikoa ezagutzeko beharra dago. Horretarako jarduera fisikoa, hezkuntza eta osasun administrazioen elkar-lana behar-beharrezkoa da. Lortzeko, Mugiment Ekintza Plana aukera ezin hobea izan daiteke.

6.- Eranskina: datuen taulak

Adina	Ikasleak datuekin	Nesken batez besteko baloreak				
		Gorpuz Masa Indizea (kg/m ²)	Gerri Perimetraoa (zm)	Luzeera jauzia (zm)	Eskuen presio-indarra (kg)	20 metro joan-etorri (estadio)
6 urte	93	16,83	56,13	103,14	10,62	2,60
7 urte	122	17,53	58,59	110,84	12,11	2,71
8 urte	158	18,08	60,04	119,67	13,71	3,01
9 urte	203	18,77	64,50	126,82	15,45	3,07
10 urte	283	18,73	63,27	138,94	17,61	3,86
11 urte	290	19,25	65,67	145,04	20,94	4,68
12 urte	315	19,73	67,13	152,39	23,77	4,69
13 urte	280	20,94	68,56	151,29	25,01	4,67
14 urte	341	21,48	70,48	153,44	26,84	5,20
15 urte	327	21,32	68,17	153,53	27,57	5,28
16 urte	184	22,71	70,17	156,52	28,69	5,02
17 urte	8	22,59	69,86	144,25	25,50	3,56

Adina	Ikasleak datuekin	Mutilen batez besteko baloreak				
		Gorpuz Masa Indizea (kg/m ²)	Gerri Perimetraoa (zm)	Luzeera jauzia (zm)	Eskuen presio-indarra (kg)	20 metro joan-etorri (estadio)
6 urte	96	16,33	55,75	111,61	11,29	3,38
7 urte	100	17,00	59,29	118,65	12,80	3,61
8 urte	163	17,63	60,61	133,84	14,95	4,53
9 urte	202	18,05	63,95	140,40	16,50	4,27
10 urte	279	18,39	63,15	148,06	18,54	5,31
11 urte	344	19,00	67,02	151,70	20,87	5,90
12 urte	327	19,86	70,55	159,00	24,38	6,06
13 urte	264	20,21	71,64	170,81	28,57	6,43
14 urte	377	20,72	74,18	185,05	33,77	7,65
15 urte	386	21,48	74,33	196,34	37,58	8,37
16 urte	184	21,80	75,68	198,31	39,46	8,22
17 urte	13	23,25	80,68	200,62	40,38	7,50

Adina	Ikasleak datuekin	Gorputz Masa Indizea					
		balore normatiboetan		Hobetzea gomendatzen da		Hobetu behar du	
6 mutilak	94	78	83,0%	10	10,64%	6	6,38%
6 neskak	92	65	70,7%	19	20,65%	8	8,70%
7 mutilak	99	66	66,7%	27	27,27%	6	6,06%
7 neskak	120	68	56,7%	46	38,33%	6	5,00%
8 mutilak	163	122	74,8%	29	17,79%	12	7,36%
8 neskak	157	109	69,4%	34	21,66%	14	8,92%
9 mutilak	202	148	73,3%	40	19,80%	14	6,93%
9 neskak	203	125	61,6%	64	31,53%	14	6,90%
10 mutilak	279	227	81,4%	40	14,34%	12	4,30%
10 neskak	283	209	73,9%	64	22,61%	10	3,53%
11 mutilak	344	242	70,3%	86	25,00%	16	4,65%
11 neskak	290	202	69,7%	79	27,24%	9	3,10%
12 mutilak	291	202	69,4%	80	27,49%	9	3,09%
12 neskak	277	223	80,5%	47	16,97%	7	2,53%
13 mutilak	202	148	73,3%	48	23,76%	6	2,97%
13 neskak	205	147	71,7%	47	22,93%	11	5,37%
14 mutilak	309	232	75,1%	59	19,09%	18	5,83%
14 neskak	269	215	79,9%	45	16,73%	9	3,35%
15 mutilak	313	234	74,8%	63	20,13%	16	5,11%
15 neskak	251	198	78,9%	47	18,73%	6	2,39%
16 mutilak	171	139	81,3%	24	14,04%	8	4,68%
16 neskak	162	118	72,8%	36	22,22%	8	4,94%
17 mutilak	12	5	41,7%	5	41,67%	2	16,67%
17 neskak	7	3	42,9%	3	42,86%	1	14,29%

Adina	Ikasleak datuekin	Gerri-perimetroa					
		balore normatiboetan		Hobetzea gomendatzen da		Hobetu behar du	
6 mutilak	73	71	97,26%	2	2,74%	0	0,00%
6 neskak	77	65	84,42%	7	9,09%	5	6,49%
7 mutilak	91	89	97,80%	2	2,20%	0	0,00%
7 neskak	109	91	83,49%	10	9,17%	8	7,34%
8 mutilak	161	156	96,89%	4	2,48%	1	0,62%
8 neskak	158	131	82,91%	15	9,49%	12	7,59%
9 mutilak	201	191	95,02%	7	3,48%	3	1,49%
9 neskak	203	158	77,83%	25	12,32%	20	9,85%
10 mutilak	255	247	96,86%	8	3,14%	0	0,00%
10 neskak	270	223	82,59%	35	12,96%	12	4,44%
11 mutilak	341	321	94,13%	17	4,99%	3	0,88%
11 neskak	288	232	80,56%	31	10,76%	25	8,68%
12 mutilak	289	277	95,85%	7	2,42%	5	1,73%
12 neskak	277	224	80,87%	30	10,83%	23	8,30%
13 mutilak	190	174	91,58%	14	7,37%	2	1,05%
13 neskak	198	164	82,83%	22	11,11%	12	6,06%
14 mutilak	307	293	95,44%	10	3,26%	4	1,30%
14 neskak	270	222	82,22%	34	12,59%	14	5,19%
15 mutilak	312	298	95,51%	8	2,56%	6	1,92%
15 neskak	252	229	90,87%	14	5,56%	9	3,57%
16 mutilak	156	148	94,87%	6	3,85%	2	1,28%
16 neskak	141	125	88,65%	9	6,38%	7	4,96%
17 mutilak	10	8	80,00%	1	10,00%	1	10,00%
17 neskak	7	6	85,71%	0	0,00%	1	14,29%

Adina	Ikasleak datuekin	Eskuen presio-indarra					
		Balore normatiboetan		Hobetzea gomendatzen da		Hobetu behar du	
6 mutilak	80	41	51,25%	22	27,50%	17	21,25%
6 neskak	84	42	50,00%	15	17,86%	27	32,14%
7 mutilak	89	42	47,19%	31	34,83%	16	17,98%
7 neskak	108	53	49,07%	29	26,85%	26	24,07%
8 mutilak	161	69	42,86%	63	39,13%	29	18,01%
8 neskak	157	61	38,85%	45	28,66%	51	32,48%
9 mutilak	202	85	42,08%	63	31,19%	54	26,73%
9 neskak	203	60	29,56%	66	32,51%	77	37,93%
10 mutilak	279	88	31,54%	122	43,73%	69	24,73%
10 neskak	282	88	31,21%	92	32,62%	102	36,17%
11 mutilak	343	83	24,20%	176	51,31%	84	24,49%
11 neskak	287	96	33,45%	114	39,72%	77	26,83%
12 mutilak	325	93	28,62%	106	32,62%	126	38,77%
12 neskak	312	137	43,91%	105	33,65%	70	22,44%
13 mutilak	254	67	26,38%	81	31,89%	106	41,73%
13 neskak	270	93	34,44%	120	44,44%	57	21,11%
14 mutilak	363	127	34,99%	134	36,91%	102	28,10%
14 neskak	332	146	43,98%	135	40,66%	51	15,36%
15 mutilak	378	155	41,01%	135	35,71%	88	23,28%
15 neskak	321	139	43,30%	130	40,50%	52	16,20%
16 mutilak	182	74	40,66%	74	40,66%	34	18,68%
16 neskak	180	90	50,00%	71	39,44%	19	10,56%
17 mutilak	13	2	15,38%	8	61,54%	3	23,08%
17 neskak	7	0	0,00%	5	71,43%	2	28,57%

Adina	Ikasleak datuekin	Luzeera jauzia					
		Balore normatiboetan		Hobetzea gomendatzen da		Hobetu behar du	
6 mutilak	57	36	63,16%	15	26,32%	6	10,53%
6 neskak	58	42	72,41%	14	24,14%	2	3,45%
7 mutilak	75	51	68,00%	16	21,33%	8	10,67%
7 neskak	88	55	62,50%	27	30,68%	6	6,82%
8 mutilak	161	116	72,05%	37	22,98%	8	4,97%
8 neskak	156	106	67,95%	36	23,08%	14	8,97%
9 mutilak	201	128	63,68%	62	30,85%	11	5,47%
9 neskak	199	118	59,30%	71	35,68%	10	5,03%
10 mutilak	277	180	64,98%	83	29,96%	14	5,05%
10 neskak	277	179	64,62%	85	30,69%	13	4,69%
11 mutilak	339	197	58,11%	100	29,50%	42	12,39%
11 neskak	285	182	63,86%	80	28,07%	23	8,07%
12 mutilak	324	170	52,47%	122	37,65%	32	9,88%
12 neskak	311	200	64,31%	91	29,26%	20	6,43%
13 mutilak	260	122	46,92%	101	38,85%	37	14,23%
13 neskak	275	160	58,18%	78	28,36%	37	13,45%
14 mutilak	372	199	53,49%	128	34,41%	45	12,10%
14 neskak	331	190	57,40%	99	29,91%	42	12,69%
15 mutilak	376	213	56,65%	118	31,38%	45	11,97%
15 neskak	313	178	56,87%	104	33,23%	31	9,90%
16 mutilak	178	90	50,56%	65	36,52%	23	12,92%
16 neskak	181	105	58,01%	61	33,70%	15	8,29%
17 mutilak	13	8	61,54%	4	30,77%	1	7,69%
17 neskak	8	3	37,50%	5	62,50%	0	0,00%

Adina	Ikasleak datuekin	20 metro joan-etorri					
		Balore normatiboetan		Hobetzea gomendatzen da		Hobetu behar du	
6 mutilak	36	18	50,00%	9	25,00%	9	25,00%
6 neskak	42	17	40,48%	17	40,48%	8	19,05%
7 mutilak	74	35	47,30%	31	41,89%	8	10,81%
7 neskak	86	42	48,84%	36	41,86%	8	9,30%
8 mutilak	160	116	72,50%	18	11,25%	26	16,25%
8 neskak	153	60	39,22%	76	49,67%	17	11,11%
9 mutilak	197	94	47,72%	68	34,52%	35	17,77%
9 neskak	200	49	24,50%	75	37,50%	76	38,00%
10 mutilak	276	185	67,03%	36	13,04%	55	19,93%
10 neskak	276	102	36,96%	130	47,10%	44	15,94%
11 mutilak	334	197	58,98%	86	25,75%	51	15,27%
11 neskak	282	203	71,99%	41	14,54%	38	13,48%
12 mutilak	295	229	77,63%	44	14,92%	22	7,46%
12 neskak	284	161	56,69%	100	35,21%	23	8,10%
13 mutilak	203	137	67,49%	43	21,18%	23	11,33%
13 neskak	209	109	52,15%	81	38,76%	19	9,09%
14 mutilak	311	245	78,78%	44	14,15%	22	7,07%
14 neskak	280	178	63,57%	86	30,71%	16	5,71%
15 mutilak	346	302	87,28%	34	9,83%	10	2,89%
15 neskak	293	203	69,28%	49	16,72%	41	13,99%
16 mutilak	173	156	90,17%	8	4,62%	9	5,20%
16 neskak	180	103	57,22%	36	20,00%	41	22,78%
17 mutilak	12	8	66,67%	3	25,00%	1	8,33%
17 neskak	8	2	25,00%	4	50,00%	2	25,00%

Adina	Ikasleak guztira	Proba denak egin ez dituzten ikasleak									
		Gorputz masa indizea		Gerri perimetroa		Eskuen presio indarra		Luzeera jauzia		20 metro joan-etorri	
6 mutilak	96	2	2,08%	23	23,96%	16	16,67%	39	40,63%	60	62,50%
6 neskak	93	1	1,08%	16	17,20%	9	9,68%	35	37,63%	51	54,84%
7 mutilak	100	1	1,00%	9	9,00%	11	11,00%	25	25,00%	26	26,00%
7 neskak	122	2	1,64%	13	10,66%	14	11,48%	34	27,87%	36	29,51%
8 mutilak	163	0	0,00%	2	1,23%	2	1,23%	2	1,23%	3	1,84%
8 neskak	158	1	0,63%	0	0,00%	1	0,63%	2	1,27%	5	3,16%
9 mutilak	202	0	0,00%	1	0,50%	0	0,00%	1	0,50%	5	2,48%
9 neskak	203	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	4	1,97%	3	1,48%
10 mutilak	279	0	0,00%	24	8,60%	0	0,00%	2	0,72%	3	1,08%
10 neskak	283	0	0,00%	13	4,59%	1	0,35%	6	2,12%	7	2,47%
11 mutilak	344	0	0,00%	3	0,87%	1	0,29%	5	1,45%	10	2,91%
11 neskak	290	0	0,00%	2	0,69%	3	1,03%	5	1,72%	8	2,76%
12 mutilak	327	36	11,01%	38	11,62%	2	0,61%	3	0,92%	32	9,79%
12 neskak	315	38	12,06%	38	12,06%	3	0,95%	4	1,27%	31	9,84%
13 mutilak	264	62	23,48%	74	28,03%	10	3,79%	4	1,52%	61	23,11%
13 neskak	280	75	26,79%	82	29,29%	10	3,57%	5	1,79%	71	25,36%
14 mutilak	377	68	18,04%	70	18,57%	14	3,71%	5	1,33%	66	17,51%
14 neskak	341	72	21,11%	71	20,82%	9	2,64%	10	2,93%	61	17,89%
15 mutilak	386	73	18,91%	74	19,17%	8	2,07%	10	2,59%	40	10,36%
15 neskak	327	76	23,24%	75	22,94%	6	1,83%	14	4,28%	34	10,40%
16 mutilak	184	13	7,07%	28	15,22%	2	1,09%	6	3,26%	11	5,98%
16 neskak	184	22	11,96%	43	23,37%	4	2,17%	3	1,63%	4	2,17%
17 mutilak	13	1	7,69%	3	23,08%	0	0,00%	0	0,00%	1	7,69%
17 neskak	8	1	12,50%	1	12,50%	1	12,50%	0	0,00%	0	0,00%
Guztira	5.339	544	10,19%	703	13,17%	127	2,38%	224	4,20%	629	11,78%